



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

IRAUNKORTASUN ETA ENPLEGU ARLOETAKO AURREKONTUEK ALDAKETA BARIK IGARO DABE ZUZENKETA-ESKE PARZIALEN BATZARRETAKO IZAPIDEA

- **Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek uko egin deutsee Elena Unzuetak eta Teresa Laespadak kudeatuko dituen kontuen alderdiren bat aldatzeko oposizinoak egindako zuzenketa-eske guztiei.**
- **Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordeak 2021eko Aurrekontuen 600 zuzenketa-eske parzial baino gehiago eztabaidatuko ditu datorren astelehenera, zezeilaren 15era, arte.**

(Bilbon, 2021eko zezeilaren 8an). Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur hasi dabe, Ogasun eta Finantzetako Batzordearen barruan, Batzarretako taldeek 2021eko Bizkaiko aurrekontuen proiektuari aurkeztutako 600 zuzenketa-eske parzial baino gehiagoren eztabaidea. Lehenengo saio bietan, Batzarretako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek uko egin deutsee Iraunkortasun eta Ingurune Natural eta Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun sailtako aurrekontuen testuen alderdiren bat aldatzeko oposizinoak aurkeztutako zuzenketa-eske guztiei.

Elena Unzuetak kudeatuko dituan kontuei jagokenez, erespena aldaketa barik iritsiko da osoko bilkurara; izan be, Foru Gobernua eusten daben indar politikoek atzera bota ditue arau-proiektuaren 9 programetako batean sartuta dagozan puntuen arteko bat aldatzeko egindako 63 zuzenketa-eskeak. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak ez dagoz ados aldaketei aurre egiteko behar diran partidak lortzeko moduagaz. Alderdi biek ez dabe onartu partidak kentzea Administrazioaren digitalizaziotik, Foru Plan Informatikotik, Interbiakerek gauzatzen dituan azpiegitura-proiektuetatik, foru-karguen ordainsariak murriztetik edo Nagusi Intelligence Centerri edo belaunaldien arteko Getxoko zentroari ekiteko gizarte-ekintzan erreserbatutako partidetatik.

Bere bolumenarengaitik, 12 zuzenketa-eske defendidu dituan Talde Berezia-PPBk, Gaztelugatxeko San Joanerako aurrekontuak handitzea, Gobela errekan ibai-pasealeku bat eregitea, foru-brigaden prestakuntzea eta ekipamenduak handitzea eta Karrantzako ur-hornidura hobetzea planteau dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Elkarrekin Bizkaia taldeak proponidutako 25 zuzenketa-eskeen artean, honeek nabarmendu ditue: Agenda 2021erako 2 milioi euroko igoerea; energia-eraginkortasuneko jardunbideak diruz laguntzeko 6 milioi; gure basoetan espezie autoktonoen aldeko apustua egiteko 600.000 euro; eta Karrantzako araztegia eregiteko 9 milioi euro. Talde moreak, ganera, Zugaztel eta Lantik enpresak kentzea proponidu dau, Aldundiaren egituran integretako, eta 22 plaza deitzea basozaintza indartzeko.

Beste alde batetik, EH Bilduk, 26 zuzenketa-eskeren bidez, klima-aldaketaren kontra burruka egiteko partida ekonomioei eustea edo handitzea defendidu dau. Atal horretan 2 milioi euro eskatu ditue energia-eraginkortasuneko politiketarako. Modu berean, eurena egin dabe El Karpin zentrorako laguntza handitzeko herritarren alegazinoa, eta baita nekazaritzako ustiatgien jasangarritasunari laguntzeko 3 milioiko partida bat eta Bizkaiko baso dibersifikauak bultzatzeko beste txikiago bat be. Proposamen horretan, Bizkaiko ustiatgietan energia-kontsumoa murriztea adostea jasoten zan. 45 milioi euro proponiduten ebezan, eta EAJ eta PSE-EE taldeek, barriz, 3 milioi, Iratxe Arriola batzordekideak argitu dauenez. Onartu ez dan beste partida bat Ur Partzuergotik kanpo dagozan toki-erakundeei 8,5 milioi euro transferidutea eskatzen ebana izan da. Eta ordainsarien atalean, diputatuarentzat eta bere bi zuzendarientzat soldatea % 25 jeitea gura eben. Azkenengo neurri hori goi mailako Aldundiko kargu guztiei zabaltzea eskatu dabe. Arlo horretan, Elkarrekin Bizkaia goi kargudunei soldatak % 15 murriztea proponidu dau.

ENPLEGUA, GIZARTERATZEA ETA BERDINTASUNA

Eguneko bigarren saioan, Ogasun eta Finantzetako Batzordeak beste 66 zuzenketa-eske eukazan gai-zerrendan, kasu honetan Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun sailaren Aurrekontuari egindakoak. Barrero ere, oposizinoko hiru taldeek Bizkaiko Batzarretan gehiengo osatzen daben eta Foru Gobernu babesten daben alderdi bien kontrako eretxia aurkitu dabe, Teresa Laespadak zuzentzen dauen saileko 7 programak idatzita egozan bezela onartu dituelako.

Talde Berezia-PPBk aurkeztutako zuzenketa-eske gehien helburua Enplegu eta Ekintzailatza Programaren hainbat alderdi aldatzea zan. Bizkaiko enplegarritasuna hobetzeko eta enpleoaren eta ekintzailatzaren kalidadea hobetzeko diru gehiago eskatu dabe Popularrek, baina Begoña Gil Sozialistak esan dauenez, alderdi horreek daborduko jasota dagoz kontuetan.

Elkarrekin Bizkaia taldeak Gizarteratzerako, Lankidetzarako eta Aniztasunaren Kudeaketarako programetan zentrau ditu bere zuzenketa-eskeak, Habitat programako, Koopera sistemako, errefuxiatuei laguntzeko Goihabe programako eta gazteen artean ekonomia zirkularra sustatzeko partidak indartuz. Horrez



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

gain, indarkeria matxistea jasan daben emakumeei eta adinbakoei laguntzeko baliabide gehiago proponidu ditu, egoitzetan eta pisuetan plaza kopuruak handituz, eta Lankidetzarako eta Garapenerako partidea 1,5 milioi igotea, % 0,7ra hurbiltzeko. EH Bilduk bat egin dau helburu horregaz.

Beste alde batetik, koalizino abertzaleak Enplegu eta Ekintzaitza programan 600.000 euro gehitzea defendidu dau, Behargintzen lekua indartzeko eta zenbateko bereko beste partida bat gazteen enpleoa bultzatzeko. Koalizino abertzaleak Habitat eta Hasi programen indartzean eta emakumeen ahaldunderako udal espazioen faltan jarri dau arreta.

Euzko abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek defendidu dabenez, Aldundiak ahalegin berezia egin dau Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailean, “% 5eko” igoera globalagaz, oposizinoko taldeek aurrekontuetan egin gura ebezan hobekuntzei aurre egiteko.

HURRENGO SAIOAK:

Martitzenean, zezeilaren 9an, 12:30ean jarraituko dabe saioek, Gizarte Ekintzako foru saileko 78 zuzenketa-eskeak bozkatzeko txandegaz.

Eguaztenean, zezeilaren 10ean, lehen hitzordua 09:30ean izango da, Ekonomia Sustapenaren 110 zuzenketa-eskeen ganean berba egiteko. 12:30ean, Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko 43 zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko txandea izango da.

Eguenean, zezeilaren 11n, saioa, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontua aldatzeko erregistrau diran 66 zuzenketa-eskeetan zentrauko da, 9:30ean. Eta hiru ordu geroago (12:30ean), Herri Administrazio eta Erakunde Harremanen 78 zuzenketa-eskeak aztertzeko txandea iritsiko da.

Barikuan, zezeilaren 12an, Bizkaiko Batzarrek saio bat programau dabe 09:30ean, Garraio eta Mugikortasun saileko 28 zuzenketa-eskeak eztabaidatzeko.

Eta astelehenean, zezeilaren 15ean, zuzenketa-eske parzialen eztabaidea Ogasun eta Finantzetako sailagaz bukatuko da. Saio horretan 27 zuzenketa-eske bozkatuko dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LOS PRESUPUESTOS DE SOSTENIBILIDAD Y DE EMPLEO PASAN SIN CAMBIOS EL TRÁMITE PARLAMENTARIO DE LAS ENMIENDAS PARCIALES

- Los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos rechazan todas las enmiendas de la oposición planteadas para cambiar algún aspecto de las cuentas que gestionarán Elena Unzueta y Teresa Laespada.
- La Comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia albergará hasta el próximo lunes, 15 de febrero, el debate de más de 600 enmiendas parciales a los Presupuestos de 2021.

(Bilbao, a 8 de febrero de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia han comenzado hoy, en el seno de la Comisión de Hacienda y Finanzas, el debate de las más de 600 enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros al proyecto de presupuestos de Bizkaia de 2021. En las dos primeras sesiones, los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han rechazado todas las enmiendas presentadas por la oposición para modificar algún aspecto de los textos presupuestarios de los departamentos de Sostenibilidad y Medio Natural, y de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

En lo que se refiere a las cuentas que gestionará Elena Unzueta, el dictamen llegará al pleno sin cambios ya que las fuerzas políticas que sustentan al Gobierno foral han desestimado las 63 enmiendas para cambiar algún aspecto del proyecto normativo, incluidas en alguno de sus 9 programas. Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han justificado su rechazo por no estar de acuerdo en cómo conseguir las partidas necesarias para hacer frente a los cambios. Ambas formaciones no han aceptado que se detraigan partidas de la digitalización de la Administración por medio del Plan Informático Foral, de proyectos de infraestructuras que ejecuta Interbiak, de la reducción de las retribuciones de los altos cargos forales o de partidas reservadas en Acción Social para hacer frente al Nagusi Intelligence Center o al Centro Intergeneracional de Getxo.

Por su volumen, el grupo Mixto-PPB, que defendía 12 enmiendas, ha planteado un incremento del presupuestos para San Juan de Gaztelugatxe, construir un paseo fluvial en el río Gobelas, aumentar la formación y equipamientos de las brigadas forales y mejorar el abastecimiento de agua en Karrantza.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Entre las 25 enmiendas planteadas por Elkarrekin Bizkaia, han destacado las referidas al aumento de 2 millones de euros para la Agenda 2021; 6 millones para subvencionar prácticas de eficiencia energética; 600.000 euros para apostar por especies autóctonas en nuestros bosques; y 9 millones para construir la depuradora de Karrantza. El grupo morado ha planteado, además, eliminar las empresas Zugaztel y Lantik para integrarlas en la estructura de la Diputación y convocar 22 plazas para reforzar la guardería forestal.

Por su parte, EH Bildu ha defendido, a través de 26 enmiendas, mantener o aumentar las partidas económicas para luchar contra el cambio climático. En este apartado han solicitado 2 millones de euros para políticas de eficiencia energética. Asimismo, han hecho suya la alegación ciudadana para que se aumente la ayuda al Centro El Karpin, al igual que una partida de 3 millones para el apoyo a las sostenibilidad de las explotaciones agrícolas y otra de menor cuantía para impulsar los bosques diversificados en Bizkaia. Este sus propuestas se incluía acordar una reducción del consumo energético en las explotaciones de Bizkaia. Proponían 45 millones de euros, frente a los 3 millones de PNV y PSE-EE, según ha desvelado su apoderada Iratxe Arriola. Otra partida no aceptada han sido los 8,5 millones para transferencias a entidades locales que estén fuera del Consorcio de Aguas. Y en el apartado retributivo, querían una rebaja salarial del 25% para la diputada y sus dos direcciones, una medida que han hecho extensiva a todos los altos cargos forales. En este apartado Elkarrekin Bizkaia ha planteado una reducción salarial del 15% a los altos cargos.

EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL, E IGUALDAD

En la segunda sesión de la jornada, la comisión de Hacienda y Finanzas incluía en el orden del día el debate de otras 66 enmiendas, en este caso al Presupuesto de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. De nuevo, los tres grupos de la oposición se han encontrado con el rechazo de las dos formaciones que apoyan al Gobierno foral que conforman mayoría en la Cámara vizcaína, que han aprobado los 7 programas del área que dirige Teresa Laespada, tal y como estaban redactados.

La mayoría de las enmiendas presentadas por el Grupo Mixto-PPB tenían como propósito cambiar diferentes aspectos del programa de Empleo y Emprendimiento. Los populares han pedido más dinero para buscar mejoras en la empleabilidad de Bizkaia y mejorar la calidad del empleo y del emprendimiento, aspectos que están presentes en las cuentas según la socialista Begoña Gil.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Elkarrekin Bizkaia ha centrado sus correcciones en los programas de Inclusión Social, y Cooperación y Gestión de las Diversidad, incluyendo un reforzamiento de las partidas del programa Habitat, del sistema Kooperera, del programa Goihabe de ayuda a las personas refugiadas y del fomento de la economía circular entre los jóvenes. Asimismo planteaba más recursos para apoyar a mujeres y menores que han sufrido violencia machista, aumentando las plazas, tanto en residencias como en pisos, e incrementar en 1,5 millones la partida de Cooperación y Desarrollo para acercarse al 0,7%, un objetivo al que se ha sumado EH Bildu.

Por su parte, la coalición abertzale ha defendido un incremento de 600.000 euros en el programa de Empleo y Emprendimiento para reforzar el papel de los Behargintza y una partida idéntica para impulsar el empleo juvenil. La coalición abertzale ha puesto el foco también en el reforzamiento de los programas Habitat y Hasi, y en la falta de espacios municipales para el empoderamiento de las mujeres.

Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han defendido que la Diputación ha hecho un esfuerzo especial en el departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, con un incremento global “del 5%” que viene a cubrir las mejoras presupuestarias que pretendían incorporar los grupos de la oposición.

PRÓXIMAS COMISIONES:

Mañana **martes, 9 de febrero**, proseguirán las sesiones a las 12.30 h., para debatir y votar las 78 enmiendas del área foral de Acción Social.

El **miércoles 10** la primera cita será a las 09.30 h. para tratar las 110 enmiendas de Promoción Económica. A las 12.30 h., turno para debatir las 43 del presupuesto de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

El **jueves 11**, la sesión se centrará en debatir las 66 enmiendas registradas para modificar el presupuesto del departamento de Euskera, Cultura y Deporte a las 9:30. Y tres horas más tarde (12.30) será el turno para tratar las 78 enmiendas de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

El **viernes 12**, la Cámara vizcaína ha programado una sesión, a las 9.30, para debatir las 28 enmiendas de Transportes y Movilidad.

Y el **lunes 15**, el debate de las enmiendas parciales concluirá con el presupuesto de Hacienda y Finanzas, en la que se votarán 27 enmiendas parciales.